

7/13 IRIZPENA

2013-2016ko Enplegu Planari buruzkoa

Bilbon, 2013ko abenduaren 20an

I.- SARRERA

2013ko azaroaren 14an, Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailaren idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Horren bidez, "2013-2016ko Enplegu Plana" deritzonari buruzko irizpena eskatu zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Planaren xedea da zailtasun handienak dituzten pertsonen enplegua eta laneratzea erraztea, bereziki gazteena. Hartara, ekintzailtza eta ETEentzako laguntza emango da. Era berean, inbertsio pribatua sustatu nahi du enpleguan eragin zuzena duten obretan eta proiektuetan, eta aldi berean erakunde publikoen arteko lankidetzeta eta erakunde publiko eta pribatuen laguntza sustatu nahi du, enplegua sortzeko.

Berehala igorri zitzaizen agiriaren kopia Batzordeko kide guztiei, euren proposamenak eta iritziak bidal ditzaten eta horien berri emateko Lan Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren Funtzionamenduaren Arautegian ezarritakoarekin bat etorritz. 2013ko abenduaren 10ean Gizarte Garapeneko Batzordea bildu da, eta hartutako erabakiak oinarri hartuta, honako Irizpen Proiektu hau eman da, abenduaren 20ko Batzordearen osoko bilkuran aztertzeko. Aho batez onetsi da bertan.

II.- EDUKIA

"2013-2016ko Enplegu Planak" hamar atal ditu (eta lehenbizikoa laburpena da), gehi Plana EAEko 2013ko eta 2014ko Aurrekontu Orokorretan txertatzen duen eranskina. Ondoren, planaren laburpena eman da:

1. Aurrekariak eta planteamendu orokorra

Krisitik ateratzea eta enpleguaren berreskurapena bultzatzeko X. Legegintzaldiko gobernua eginiko lehen proposamena enplegua bultzatzeko premiazko plan-proposamena egitea izan zen hasierako 100 egunetan, eragin neurgarria eta zenbagarria duten neurri zehatzekin: "Enplegua Sustatzeko 2013-2016 Aldirako Programa", lehendakariak 2013ko martxoaren 18an aurkeztua. Erakunde eta gizarte eragileei igorri zitzaizen proposamena, erkaketa egiteko eta ekarpenak aurkezteko. Horien ondorioa da honako Enplegu Plan hau, hain zuzen ere gobernua enplegua Euskadin sustatzeko duen konpromisoaren adierazgarri, beste gizarte eragile eta erakunde batzuekin batera.

Egoeraren premiazotasuna dela-eta, zuzenean jardun eta adostasuna bilatu behar izan da aldi berean. Horrexegatik, adostasuna bilatzearekin batera, lehen proposamenean ezarritako ekimenak abiarazi ditu gobernua, eta aldi berean, akordioen ondorioak ere ezarri ditu.

Plana lehen urratsa besterik ez dela eta epe laburrerako eragina duela jakinik, gobernuak uste du ezen, planak dakartzan ekimenek hedadura handiagoa izan dezaten, ekonomia suspertzeko estrategia zabalago batekin osatu beharko dela, lehiakortasuna hobetzeko EAEko industri sarearen epe ertainera. Lau zutabe handi eduki behar ditu estrategiak: Inbertsio publikoa, Industrializazioa, Berrikuntza eta Nazioartekotzea. Horretarako, gainera, funtsezkoa izango da erakundeen arteko lankidetzeta eta erakunde publiko eta pribatuen eta ekonomi eragileen laguntza.

Eusko Legebiltzarrak 2013ko martxoaren 8an onetsitako Ebazpenaren proposamenetan eta oinarritzko ildoetan kokatzen da Enplegu Plana. Proposamen heterogeneoak dira, eta askotariko helburuei eta jarduketara erantzuten die. Batzuk arau-izaerakoak dira, bestetuek epe ertainerako eragin handiagoa dute hala nola ebazpen proposamenak. Honako printzipio hauek biltzen dituzte ezaugarri komun gisa:

- Egoera larrian gaude eta premiaz aurkeztu behar da, beraz, Enplegua Sustatzeko Plana.
- Enpleguari eusteak eta berriak sortzeak Gobernuaren lehentasun nagusia izan behar dute.
- Zailtasun handienak dituztenak laneratzea erraztu behar da, haien gizarte bazterketa kroniko bihurtu ez dadin.
- Enplegua konpromiso globala da. Hura garatzeko, osagarritasuna eta lankidetzeta behar dira euskal erakunde guztien artean.
- Elkarrizketaren kulturak eta gizarte itunak, ezinbestean, enpleguari eusteko balio behar dute.
- Enpleguaren aldeko hasierako plan gogorrak ekonomia sustatzeko beste neurri batzuekin osatzeko, ETEn lehiakortasuna hobetzeko epe ertainera.

Printzipio konpartitu horiei buruz, Enplegu Planak besteak beste honako helburu hauek eman zituen Eusko Legebiltzarrak:

- Zailtasun handienak dituztenen enplegua eta laneratzea bultzatzea eta bereziki gazteenak.
- Ekintzailatza erraztea eta ETEi laguntzea.
- Inbertsio pribatua bultzatzea enpleguan eragin zuzena duten obretan eta proiektuetan.

Erakundeen arteko lankidetzeta eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta sustatzea enplegua gal ez dadin.

Azkenik, honako jarduketara-ardatz hauek ere eman dira Legebiltzarraren proposamen guztietan agertzen diren tresna komunak diren aldetik:

- ETEn finantzazioa bultzatzea.
- Gure udalerrien eta eskualdeen gaitasun endogenoak aprobetxatzea.
- Ekintzailatza eta autoenplegua.
- Gazteen enplegua sustatzea.
- Enplegurako trebakuntza.
- Enplegua sortzen duen inbertsioa.

Enplegu Planaren asmoa ezin izan daiteke egun dauden eta iraganean gauzaturik dauden estrategiak ordeztzea, azkeneko 2011-2014ko Enplegurako Euskal Estrategia bezala. Izan ere, horren gogoetak konpartitu eta onetsi egin dira Eusko Legebiltzarrean ere. Xedea beste bat da: gogoetak zehaztu eta gogoeta horiei erantzuna ematea ekintzen aldetik. Horretarako, sei programa operatiborekin jarri da abian:

1. ETEn sustapena eta tokiko garapena.
2. Ekintzailatza sustatzea.
3. Gazteen enplegua sustatzea. Gazteen bermea.
4. Enplegurako trebakuntza.

5. Enplegu inklusiboa. Elkartasuna enpleguarekin.
6. Birgaikuntzarako RENOVE plana.

Planaren aurrekontua, guztira, 960 milioi euro da. Gainera, gobernuak aurrekontuen aldetik egin beharreko ahaleginei esker, beste 2.355 milioi euro erabiliko dira finantzen eta inbertsio pribatuaren arloan, hots, Planean ezarritako ekimenetarako, guztira, 3.315 milioi euro daude aurreikusita 2013-2016 aldirako. Halaber, aurreikuspenen arabera, ondorio hauek izango ditu:

- Gutxi gorabehera 40.300 lanpostu sortzea bultzatzea.
- 160.000 lanpostu baino gehiago mantentzeko laguntza.
- Lehen lan esperientziarako aukera 24.500 gazterentzat.

Konpromiso hori gauzatzeko, Ekonomia Sustatzeko eta Enplegua Bultzatzeko erakunde arteko akordioa izenpetu zuten 2013ko maiatzaren 8an Eusko Jaurlaritzak, 3 foru aldundiek eta EUDELEk. Erakunde arteko akordio horretan, baterako lana aurreikusita dago Ekonomia Sustatzeko Ezohiko Plan bat sortu eta gauzatzeko, Enpleguarean Aldeko Elkartasun Funtsa eta Ekintzailetzarako Ezohiko Euskal Funtsa.

Eremu orokorreko akordio horretaz gain, hitzarmen espezifikoak ezartzea aurreikusten du gobernuak ekimen hauetarako: hainbat administrazioen lankidetzak lagungarria izan daitekeenean eragin handiagoa izateko enpleguaren sorkuntzan euskal herritarren enplegua mantentzeko edota handitzeko. Zehazkiago, enpresak sortzeko laguntzarako ekimenak zentzu handiagoz bideratzeko eta hobetzeko marjina handia dagoela irizten zaio, non administrazioek (tokikoek, forukoek eta euskal administrazioek) komunean jarriko dituzten eskuragarri dituzten baliabide guztiak (sentsibilizazioa, aholkularitza, finantzazioa laguntzea, gune egokien kokapena enpresa berrien hasierako faseetan) eta koordinatuta garatuko dituzten tresna berriak (bereziki finantzazioaren arloan), zertarako-eta Euskadi herrialde ekintzaile benetan bihurtzeko eta agertzen diren ekintzailetza ekimenak baldintza onenetan betetzeko.

Horretarako, Ekintzailetzarako Euskal Sistema garatzeko Lankidetzak Eremu Akordioa izenpetu zen 2013ko uztailaren 2an, euskal gizarteak ekintzailetzarako duen ahalmena eraginkortasunez sustatzeko eta bultzatzeko, eta akordio hori geroko Ekintzailetzarako Euskal Plana eginda garatu eta handituko da.

Era berean, plana bat dator EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) alderdi politikoen, 2013ko irailaren 16an, Euskadi modernoa, solidarioa, iraunkorra eta lehiakorra lortzeko izenpetu zuten akordioan konpartituriko konpromisoekin eta printzipioekin.

Azkenik, gobernuak hainbat sailtako 50 pertsona baino gehiagoren partaidetzaren emaitza izan da Enplegu Plana, eta hainbat arlo eta programa operatiboren partaidetza ere izan du, Lehendakariaren Idazkaritzatik koordinatuta Lan Batzorde baten bitartez. Batzorde horretan, Lehendakariaren gain, Osasun Sailak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saila eta Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila izan dira. Era berean, Osasun eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailek hartu dute parte, gehienbat.

Bere eskumen-eremua dela-eta, Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailari dagokio erantzukizunik handiena, ondoren garatu eta gauzatzeko, baina estrategia honetan gobernu osoak parte hartzen du, Lehendakariaren erantzule nagusia dela.

Nolanahi ere, enplegua bultzatzeko legegintzaldi honetan garatzeko hasieran hitzarturiko ekimenekin eta ekarpenekin aurkeztu du gobernuak plana, baina urtero eguneratuko da lan-merkatuaren baldintzen eta aurrekontu publiko baliagarrien bilakaeren arabera. Gainera, lankidetzarako zabalik dagoen plantzat hartu da; izan ere, gainerako erakundeek ekarpenekin eta erkaketekin elikatuko da, bereziki foru aldundiekin.

2. Printzipioak

1. Enpleguari eusteak eta berriak sortzeak Gobernuaren lehentasun nagusia izan behar dute.
2. Herri administrazioek nahitaez eman behar dituzte enplegua sustatzeko beharrezko baldintzak eta tresnak emateko, betiere jarduteko ohiko aurrekontuen gainean oinarrituriko estrategia global baten bidez. Enplegua ez da aparte dagoen aldagaia, estatuko eta nazioarteko egoera ekonomikoarekin zerikusia duten kanpoko zenbait faktoreen eta

honako hauekin loturiko barne faktoreen emaitza da: lehiakortasuna, nazioartekotzea, trebakuntza, inbertsio publikoen politika, ekintzailatza eta langabetuak laneratzera bideraturiko politikak.

3. Enplegurako politika aktiboak dinamizatzea, ekintzailatza eta trebakuntza ezinbestekoak dira enpleguaren aldeko estrategia eraginkorra garatzeko.
4. Zailtasun handienak dituzten pertsonak gizarteratzea lortzeko eta baztertuak izatea saihesteko modurik hobereana laneratzea bizkortzea da, betiere langabezi tasa handiena duten eskualdeetan eraginda. Arreta berezia jarri behar zaie gazteei, eta erraztasunak eman behar dira nazioartean lanean ari diren euskal gazteak Euskadira itzul daitezzen. Horretarako, lanerako aukerak sortuko dira haientzat hemen.
5. Elkarrizketaren eta etengabeko negoziazioaren kulturak ezinbestean lagundu behar du enplegua bultzatzen eta mantentzen, gizarte mailan kohesionatuta dagoen Euskadi sustatuz eta gizarte osoaren eskakizunei erantzunak emanez.
6. Enplegua guztion konpromisoa eta Herrialde mailako erronka da. Euskal erakundeen arteko (bereziki gobernuaren eta foru aldundien artean) osagarritasun eta lankidetzaren printzipioak izan behar du nagusi enpleguaren aldeko estrategian eta programa operatiboetan. Ildo berean, estatuko eta Europako funtsen diru-ekarpena eskatzen da, enplegua sortzera bideratuta.
7. Bizi dugun larrialdian, jarduketa azkarra eta argia behar da, eta enplegu plan batean gauzatu behar da epe laburrean. Enpleguaren aldeko ohiko jarduketaz gain, zerga erreformatik eta iruzurraren kontrako borrokatik datozen baliabideen zati handi bat ekonomia sustatzeko eta enplegua sortzeko programetarako erabili behar da, enpresa lehiakortasuna hobetzeko eta enplegua sortzeko ahaleginak ikusarazi ahal izateko, bereziki gazteen alde.
8. "Suspertze Plan" horrekin batera, epe ertainerako estrategia globala behar da, Euskadiren lehiakortasuna hobetzeko. Inbertsioa, Berrikuntza, Nazioartekotzea eta Industrializazioa izan behar ditu oinarri estrategia horrek; ekonomia suspertu eta enplegua berreskuratu eta sortzeko oinarri sendoak ezartzen lagunduko du Euskadin.
9. Errealitatearen printzipioak exijitzen duenez, defizitaren jaitzieratik eta zerga erreformatik sor daitezkeen baliabideak aurrekontu ahalmenera egokitu behar dira. Printzipio hori dela bide, konpromiso handizaleak baina eskuratzeko modukoak planteatzen zaizkio gizaritari, eta gauzatu egin daitezke konpromisook benetako muga ekonomikoen eta aurrekontu mugen arabera.
10. Errealitate printzipio horrekin batera, funtsezko beste printzipio bat bete behar da: enpleguaren aldeko elkartasuna. Aurrekontu publikoen zati handi bat enplegua sortzarekin loturiko politiketarako erabili behar da.

3. Helburuak

1. Krisi ekonomikoaren ondorioz Euskadin desegin diren eta desegiten ari diren lanpostuak nolabait berreskuratzea
2. Euskal gazteriaren enplegua eta laneratzea erraztea
3. Zailtasunak dituzten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea indartzea
4. Autoenplegua bultzatzea eta ekintzailatza erraztea aberastasuna eta enplegua sortzeko oinarria den aldetik
5. Inbertsio pribatua eta obra intentsiboak bultzatzea enpleguaren sorkuntzan
6. Eskualde eta tokiko ahalmen endogenoa aprobetxatzea enplegua sortzeko eta mantentzeko
7. Erakundeen arteko lankidetzaren eta enpleguaren aldeko ahaleginak batzea sustatzea

4. Programa operatiboak

I. ETEn sustapena eta tokiko garapena.

Gure enpresa sarea finantzatzeko laguntzarako ekimenak behar dira; izan ere, finantzazioa ezinbestekoa da enpresek egungo enpleguari eutsi diezaioten eta enpleguan tokiko eremuko jarduera intentsiboak egiteko ahalmen endogenoa aprobetxatzeko.

Kreditu-murrizpenak eragina izaten ari dira bereziki ETEetan: enpresa askok ez dute kanpoko finantzazioa eskatzen, berau emateko edo zentzuzko baldintza onargarrietan emateko izan daitezkeen zailtasunen aurrean. Finantzazioa eskuratzeko zailtasun horrek, batez ere enpresa txikietan, bi arrisku dakartza: alde batetik, finantza egitura ahula mantentzea, edozein egoera komertzial edo finantzario txarretan enpresaren biziraupena arriskuan jar dezakeena; bestetik, kasu askotan hedapen proiektuei uko egin behar izatea, negozio bide berriak edo merkatu berriak alde batera utzi behar izatea. Proiektu horien ondorioz, jarduera handitu liteke eta, beraz, enplegua ere bai.

Bestalde, enpleguan intentsiboak diren tokiko zenbait jarduerak hala nola merkataritzak, turismoak eta lehen mailako jarduerak egungo egoera ekonomikoaren eragin handia izan dute, eta enpleguaren beheranzko joera handia izan dute. Jarduera horiek garapenerako ahalmen endogeno garrantzitsua dute tokiko ekonomiarako, eta hori dela-eta, horien garapena suspertzerako bideraturiko ekintza espezifikoak zehaztu behar dira, baita enplegua mantentzeko eta sortzeko lagungarria izateko ere gehienbat tokikoak diren sektore horietan.

Jarduketa-ardatzak:

1. Beharrezko finantzazioa jartzea ETEn eta autonomoen eskura.
2. Tokiko merkataritzaren garapen indartzea eta erraztea.
3. Landa garapena sustatzea.

II. Ekintzailletza sustatzea.

Programa honen xedea Euskadin ekintzailletza kultura suspertzea da, baita enpresa berrien sorrera errazteko beharrezko baliabideak eskaintzea ere, autoenplegua eta ekintzailletza sustatuz.

Euskadin ekintzailletza kultura izan denez, gizarte aurreratua eta lehiakorra bilakatu gara nazioarte mailan. Alabaina, azken urteetako datuen erakusten dutenez, galdu egin da ekintzailletzarako dinamismo horren zati handi bat. Egungo azterlanen arabera, hauexek dira EAEn ekintzailletzarako dauden eragozpen nagusiak, ordena horretan: ekintzailletzari buruzko sentsibilizaziorik eza lehen eta bigarren hezkuntzan eta finantzazioa eskuratzeko zailtasunak.

Sentsibilizazioa lantzeaz gain, funtsezkoa da baliabide eskuragarri guztiekin laguntza ematea enplegua sortzeko enpresa proiektuak sustatu nahi dituztenei. Are gehiago kasu askotan ekintzailletzarako proiektuak dituzten gero eta pertsona gehiagok kudeaketarako beharrezko jakintza eta trebetasuna ez dituztenean. Egoera hori ageriago gertatzen da "ezinbestean ekintzaileak direnak" ditugunean; 4 euskal ekintzaileetatik 1 sartzen da multzo horretan.

Ekintzaile mota bakoitzari egokituriko tresnak oinarri hartuta egituratu behar da laguntza. Oinarrizko laguntza behar duten mikroekintzailletik hasita (gogoratu behar da EAeko ekintzaileen %94k 6 lanpostu baino gutxiago sortzen dituztela), gehienbat normalean oso handia ez den finantzazioa eskuratzera edo enplegua sortzeko ahalmen handia duten proiektu berritzaileeta: azken horiek laguntzarako tresna landuagoak behar dituzte. Horiek helburu guztiak daude bilduta EAeko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzeari buruzko ekainaren 28ko 16/2012 Legean. Lege horren xedea ekintzailletza bultzatzea eta sustatzea da EAEn eskumenen arloan.

Ekintzailletza sustatzeko programaren helburua ekintzaileei laguntza integrala eskaintzea da: ekintzailletzaz eta ekintzailletzan jarduteko aukeraz jabeaztea, enpresa berriak abian jartzea eta enpresa berrien hasierako egoeretan laguntzea. Hartara, diskriminazio positiboa egingo da hauexen alde: kultura eta sorkuntza arloko industriekin loturiko enplegu sorgune berriak, ingurumenarekin zerikusia duten enpresak (green jobs), gizarte-osasuneko laguntza (white jobs) informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (blue jobs), baita Espezializazio Inteligentearen Euskal Estrategia RIS3 delakoaren eremuan estrategikotzat hartutako beste sektore batzuk ere.

Ekintzaitzarako proiektu bakoitzaren beharretara egokituriko tresnekin ezarriko da laguntza. Tresna horietan, berebiziko garrantzia izango dute finantzazioa eskuratzeari buruzkoak; izan ere, finantzazioa da Euskadin ekintzaitzarako eragozpen nagusia eta, bereziki, mikroredituak sustatu behar dira mikroekintzaitza bultzatzeko oinarritzko tresna den aldetik, baita 16/2012 Legean Ekintzaitzarako Euskal Sistema eratzearen eremuan bildutako beste tresna batzuk ere. "Lehiatila bakarra" delakoaren filosofiarri jarraituz, Euskadin sortutako enpresa ekimenentzako laguntza eraginkorra emango zaie.

Jarduketa-ardatzak:

1. "Euskadi, ekintzaitzarako lurraldea".
2. Autoenplegua eta mikroekintzaitza bultzatzea.
3. Enpresa berritzaile berriak.

III. Gazteen enplegua sustatzea. Gazteen bermea.

Beren beregi gazteen langabezi tasa handien kontra egiteko programa da, laneratzearekin, enplegurako trebakuntzarekin eta gazteen ekintzaitzarekin loturiko neurrien bidez eta "gazteen bermea" kontzeptuan aurrera eginez.

Langabezia larria izanik ere, are larriagoa da gazteen artean: lan egin nahi duten 25 urtetik beherako 10etik 4k ezin du lana aurkitu. 35 urtetik beherakoak EAeko 3 langabetuetatik bat dira dagoeneko. Gazte horietako askok oraindik ez du lehen lan esperientziarik izan, eta gorpil zoroan daude murgilduta: "esperientziarik gabeko gaztea – esperientziarik gabeko gaztea kontratatu nahi ez duen enpresa – esperientziarik gabeko gaztea". Beste zati handi batek ez du nahikoa trebakuntza gure enpresa sarearen lehiakortasunaren eskakizunei aurre egiteko. Hortaz, oso txikia edo txikia da lana epe ertainean edo luzean aurkitzeko aukera.

Gazteen langabeziak eta gazteak lana bilatzeari uko egitera daraman egoerak kostua dakarte ekonomiarentzat, gizartearentzat, banakoarentzat eta familiarentzat. Lanik eza, gazte-gazterik gertatzen bada, arriskua da pertsonak etorkizunean lana aurkitzeko aukeratarako, eta bizitza osoan iraun dezaketean laneko jokabide desegokiak eragin ditzake. Gainera, ondorio psikosozialak dakartza eta hezkuntza formalean inbertsio handia egitera itzultzea kaltegarria da gizartearentzat.

Horregatik, programa honen xedea gazteen lana eta laneratzea bultzatzea da, hauexen bidez:

- Autoenplegua beren beregi sustatzea euskal gazteen artean, mikroenpresa berriak eta gazteen negozio txikiak martxan jartzea bultzatuz.
- Gazteak eta enpresak gehiago hurbiltzea, trebakuntzak enpresan eta trebakuntza programen baitan duen pisu handiagoa izateari dagokionez (bereziki lanbide heziketan) nahiz gazteek lanerako lehen aukera izateko programak eta laguntzak ezartzeari dagokionez.
- Euskal gazteen talentua bultzatzea, gure gazteriaren bikaintasunerako trebakuntza bultzatuz.

Jarduketa-ardatzak:

1. Gazteen ekintzaitza bultzatzea.
2. Trebakuntza duala.
3. Lehen lan esperientzia.
4. Gazteen talentua.

IV. Enplegurako trebakuntza.

Programaren xedea lanpostuak gehitzea da, langabetuena nahiz lanean ari direnena, gehienbat langabetuak aukerako sektoreetan gaitzearen bidez.

Prestakuntza da enpleguan gehien eragiten duten aldagaietako bat. EAEko 10 langabetuetatik 7k Lanbide Heziketatik beherako maila akademikoa dute. Datu hori ez da batere egokia zenbait azterlanek dakartena ikusita: enplegua, pixkanaka, gaitasun maila handiagoa duten lanbideetara bideratzen ari da Europako Batasunean. 2000an prestakuntza txikiko enpleguei zegokien lanpostuen %29, baina aurreikuspenen arabera, %19ra jaitsiko da ehuneko hori 2020an.

Beharrezkoa da trebakuntzan inbertitzea, baina funtsezkoa da “aukerako sektoreetara” bideratzea, egungoa bezalako egoera zailean ere betetzeko oso zailak diren oso lanbide profil zehatzak behar dituzten nitxoetara nahiz pertsona berriak sartu behar dituzten enpresetara, ekonomia berriz hastearekin batera.

Eskaintako prestakuntzaren eta behar den prestakuntzaren arteko desfasearen testuinguru horretan, premiaz jardun beharra dago zenbait talde gaitzeko. Horien artean, lan-erregulazioa izan dituzten pertsonak nabarmentzen dira, baita lan esperientzia izan arren euren lanbide gaitasuna etorkizun hobeko profiletara bideratu behar dutenak ere.

Gainera, lanean dihardutenen kalitate handiko trebakuntza eman beharko da osagarri legez. Horri esker, alde batetik hobeto egingo dute lan produktibitatearen aldetik eta balioa emango zaie haien egungo lanei, eta bestetik, laneko igurikapen hobeak izango dira egungo lanpostua galtzeko balizko egoeraren aurrean.

Jarduketa-ardatzak:

1. Langabetuak trebatzea.
2. Lanean ari direnak trebatzea.

V. Enplegu inklusiboa. Elkartasuna enpleguarekin.

Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak laneratzeko prozesua errazteko ekintza espezifikoak, udalerrien eta eskualdeen behar eta aukera espezifikoetara egokituak.

Gazteez gain, badira gure lan merkatuan zailtasunak dituzten beste talde batzuk gure gizartean. EAEn 2012ko abenduan langabe zeuden pertsonen %54,4 iraupen luzeko langabetuak ziren, eta kopuru absolutuetan igoz joan da pisu erlatiboa krisia hasi zenetik. Gainera, Diru-sarrerak Bermatzeko Erretaren onuradun titularrak ziren 57.979 pertsona orotara. Talde horiek lana eskuratzeko zailtasun bereziak dituzte eta, beraz, horientzako programa espezifikoa sartu nahi du planak. Bestalde, planaren beste programa operatibo batzuen onura ere jaso ahal izango dute.

Gizarte izaera dela-eta, lehentasunezkoa da programa operatiboa gobernuarentzat. Horregatik, erakundeen arteko ahalik eta lankidetzeta mailarik handiena izango da bi mailatan:

- Erakundeen baliabideak esleitzea.
- Talde horiek laneratzeko programak sortzea eta martxan jartzea. Tokiko eta eskualdeko erakundeen (enplegurako aukerak eta nitxoak identifika ditzakete) laguntza izan beharko dute programa horiek, baita pertsona horien gizarte-lanbide laguntzarako funtsezkoak diren gizarte erakundeena ere.

Laguntzarako ekintzak izan daitezke talde horietako pertsonak zuzenean kontratatzea toki eta eskualde mailako enplegu planetan, enpresek pertsona horiek kontratatzeke pizgarri bereziak izatea eta haien gaikuntza eta laneratzeta.

Jarduketa-ardatzak:

1. Enplegu planak toki eta eskualde mailan.
2. Kontratatzeko pizgarriak.
3. Baztertuak izateko arriskuan diren pertsonak gaitzea eta laneratzea bultzatzea.

VI. Birgaikuntzarako RENOVE plana.

Programa honen xedea enpleguaren sorkuntzarako pizgarriak ematea da birgaikuntzaren sektorean. Hartara, eremu hauetan jardungo da (zehazki, euskal etxebizitzaren irisgarritasun baldintzak eta energi eraginkortasuna hobetzea): osasun etxeak berritzea eta osasun etxeak mantentzeko eta birgaitzeko obrak egitea.

Zuzeneko eta zeharkako lan-esku handia behar dela-eta, eraikuntzaren sektorean jardun behar da ezinbestean Euskadin langabeziari aurre egiteko. Zenbatespenen arabera, krisia hasi zenetik guztizko langabeziaren hazkundearen %20 eraikuntzaren sektoreko atzeraldiak eraginda dago.

Sektore horretan langabezi tasa handiak izan arren, behar handia dago, bereziki etxebizitzak birgaitzearen arloan. EAEko egoitza eraikinen %53k 50 urtetik gorako antzinatasuna du, Europako mailarik handienetako bat. Gainera, eraikinen %15ek premiazko esku-hartzea behar du, hauexen ondorioz:

- Gizarte behar garrantzitsuak: EAEko egoitza eraikinen %76 ez dira irisgarriak, eta etxebizitzaren %29k ez du igogailurik.
- Energi jokabide txikia: gure etxebizitza guztien %72 1980 baino lehen eraiki zen. Izan ere, urte horretan abiarazi zen egoitza erabilerako eraikinetan nolabaiteko isolamendu termikoa ezartzea aurreikusten zuen lehen araua.

Etxebizitzaz gain, birgaikuntzarako bestelako merkatu-nitxo batzuk daude. Horietako bat gizarte ekipamenduak dira hala nola ikastetxeak eta osasun etxeak.

Birgaikuntzaren beste ezaugarrietako bat hurbileko lanpostu-nitxoa izatea da, non mikroenpresek eta enpresa txikiek pisu handia duten. Hori dela-eta, funtsean toki mailako ondorioa eta sortutako enplegu mailan dute funtsezko ondorioa etxebizitzak birgaitzeko ezarritako ekimenek.

Azkenik, esan beharra dago laguntza publikoek pizgarriak areagotzeko ondorio handiak izaten dituztela birgaikuntzarako eskarian.

Jarduketa-ardatzak:

1. Etxebizitza. Irisgarritasuna eta energi eraginkortasuna hobetzea.
2. Hezkuntza. Ikastetxe publikoak.
3. Osasuna. Osasun etxeak eta ekipamendu publikoak.

5. Diru baliabideak

3 funts mota jasoko ditu planak:

1. Gobernuaren finantzazio publikoa. Hartara, aurreikusitako aurrekontua izango da aintzat baita honako konpromiso hau ere: zerga erreformatik eta iruzurraren kontrako borrotatik modu osagarrian lortuko diren baliabideen %50 ekonomia biziberritzeko eta enplegua sortzeko erabiltea.
2. Erakundeen erabakien ondoriozko euskal erakundeen beste ekarpen publiko batzuk.
3. Finantzazio pribatua. 3 iturri izango ditu:
 - Finantza-erakundeen dirua eta enpresen zerbitzura jarritako bestelako finantzabide batzuk.
 - Aurrezpen pribatua: behar bezala bideratuta edo bultzatuta, finantzaziorako aukera berriak ekar ditzake euskal enpresentzat. Kasu honetan, bi helburu ditu baliabide pribatu horiek mugiarazteak: alde batetik, enpresentzako kapital berria ekartzea; eta bestetik, ekintzailletza proiektu berrien arazo nagusia konpontzea: jarduera martxan jartzeko beharrezko finantzazioa eskuratzea.
 - Etxebizitza birgaitzeko inbertsioa pribatua, horretarako diru-laguntza publikoek dakartzaten pizgarriak oinarri hartuta mugiaraziko dena.

BALIABIDEAK ARDATZEN ARABERA				
		Finantziazio propioa 2013- 2016	Mugiarazitako baliabide pribatuak	Baliabideak, guztira 2013-2016
1.1.	ETEn eta autonomoen finantzazioa	6.865.825€	1.340.000.000€	1.346.865.825€
1.2.	Turismoa eta tokiko merkataritza eta enplegua	21.033.650€	0€	21.033.650€
1.3.	Oinarrizko sektorearen garapena eta enplegua	29.433.632€	0€	29.433.632€
2.1.	“Euskadi, ekintzailletza lurraldea”. Ekintzailletzako euskal sistema indartzea eta hobetzea	5.830.008€	0€	5.830.008€
2.2.	Autoenplegua eta mikroekintzailletza bultzatzea	31.196.382€	20.495.000€	51.691.385€
2.3.	Enpresa berritzaile berriak	15.473.725€	0€	15.473.725€
3.1.	Gazteen ekintzailletza bultzatzea	10.386.866 €	0€	10.386.866€
3.2.	Trebakuntza duala	20.482.703€	0€	20.482.703€
3.3.	Lehen lan esperientzia	36.356.687€	0€	36.356.687€
3.4.	Gazteen talentua	36.136.862€	0€	36.136.862€
4.1.	Langabetuentzako trebakuntza	168.544.100€	0€	168.544.100€
4.2.	Lanean ari direnentzako trebakuntza	67.838.450€	0€	67.838.450€
5.1.	Enplegu planak toki eta eskualde mailan	49.789.569€	0€	49.789.569€
5.2.	Kontrataziorako pizgarriak	11.698.759 €	0€	11.698.759€
5.3.	Baztertuak izateko arriskuan diren pertsonak laneratzeko gaitzea eta bultzatzea	222.801.661€	0€	222.801.661€
6.1.	Etxebizitzako Renove Plana	59.520.501€	994.729.342€	1.054.249.843€
6.2.	Hezkuntzako Renove Plana	143.032.064€	0€	143.032.064€
6.3.	Osasuneko Renove Plana	23.774.200€	0€	23.774.200€
OROTARA		960.195.644€	2.355.224.342€	3.315.419.989€

Gainera, Estatuko gobernuaren partidekin osatuko da finantzazioa: bere finantzazioa edota Europako funtsak bilduta, autonomia erkidegoen eskura jarriko du finantzazio hori estatuak honako programa hauetarako pizgarriak emateko: gazteentzako enplegua, ekintzailletza, trebakuntza eta behar handiena duten taldeak laneratzeko.

Planaren aurrekontuan, 3.314 milioi euro zenbatetsi dira Euskadin enplegua sustatzeko 2013-2016ko aldiari. Horietatik 960 finantzazio publikoak izango lirateke, eta 2.355 milioi euro mugiarazitako diru pribatutik.

ENPLEGUAN DUEN ERAGINA, PROGRAMA OPERATIBOEN ARABERA							
PROGRAMAK	1	2	3	4	5	6	PROGRAMAK, OROTARA
ENPLEGUA SORTZEA 2013-2016 (Pertsona)							
Sortutako enplegua, OROTARA	700	13.036	4.562	0	7.132	14.933	40.363

Enpresak sortzea/haztea	700	12.421	3.394	0	0	0	16.515
Birgaikuntzarako enplegua	0	0	0	0	0	14.933	14.933
Kontrataziorako zuzeneko pizgarriak	0	615	1.168	0	7.132	0	8.915
ENPLEGUA MANTENTZEA 2013-2016 (Pertsonak)							
Mantendutako enplegua, OROTARA	123.798	11.845	0	0	32.178	0	167.821
Enpresentzako finantzazioa	92.153	0	0	0	0	0	92.153
ETEn lehiakortasuna hobetzea/finkapena	31.365	6.557	0	0	0	0	37.922
Belaunaldi aldaketarako eta gizart. eta ekon. trans. bultzatzea	280	5.288	0	0	0	0	5.568
Enplegurako zentro berezi eta laneratzeko enpresentzako laguntza	0	0	0	0	32.178	0	32.178
LANPOSTU KOPURUA HANDITZEA 2013-2016 (Pertsonak)							
Lanpostu kopuru handiagoa, OROTARA	24.914	0	200.033	208.391	21.725	0	455.063
Gazteen lehen esperientzia	0	0	24.489	0	0	0	24.489
Enplegu kopurua handitzeko bestelakoak	24.914	0	175.545	208.391	21.725	0	430.575

Finantzazio publikoan, honelaxe dago osatuta zenbatespena:

- Planari lotutako aurrekontuak 2013 eta 2014ko ekitaldietan.
- 2015 eta 2016ko ekitaldietarako aurreikuspenak; urtero zehaztuko dira.
- Finantzazio pribatuaren barruan, hauek nabarmentzen dira:
- Mailegu pribatuetatik, finantza erakundeen abaletatik eta bestelako finantzabideetatik datozen 1.340 milioi euro.
- Mikrokreditu erakundeetatik zenbatetsitako finantzazioko 20,5 milioi euro.
- Etxebizitza birgaitzeko inbertsio pribatua, horretarako diru-laguntza publikoek dakartzaten pizgarriak oinarri hartuta mugiaraziko dena. Ekarpn pribatua, zenbatespenen arabera, 995 milioi eurokoa da planaren indarraldiko 4 urterako.

Hasierako aurrekontuaren hedadura horri gehitu beharko litzazkioke planari lotuta egon litezkeen Europar Batasuneko eta Estatuko gobernuaren ekarpenak.

6. Espero den eragina

Enpleguaren ikuspegitik, 3 eragin mota izango ditu planak:

1. Enplegua sortzea, enpresa berriak eta egungo enpresetan enplegu berriak sortuta.
2. Enplegua mantentzea, zailtasunak dituzten enpresei lagunduta, eta tokiko garapenarekin lotutako sektore ekonomikoen lehiakortasuna hobetzea egungo enpleguari eusteko.
3. Gaitze eta orientatze jardueretan parte hartzen duten pertsonen lanpostuak gehitzea eta enplegurako laguntza ematea.

Nahiz eta euskal ekonomia izaten ari den langabezi tasa handietarako konponbidea bermatzen ez duten (egoera hori konpontzeko, ekonomia suspertzeko egiturako oinarriek eta enplegua sortzen duen BPGaren nahikoa hazkundeak eragiten dute batez ere), lana hobetzeko aukera eskainiko die programa honek dakartzan ekimenek pertsona kopuru handi bati. Aukera horietako zenbait egoera arintzeko besterik ez dira izango, aldi baterako lanpostuak direlako. Beste batzuk, aldiz, iraunkorragoak izateko esperientziarekin sortu dira, enpresa berriak sortzearekin loturikoak adibidez.

2013-2016ko aldian, honako eragin hauek aurreikusten dira, besteak beste:

- Programaren ekimenek lagundutako 9.700 autonomo berriek eta mikroenpresek sortuko dituzten 16.500 lanpostu sortzea.

- 8.900 pertsona kontratatzea pizgarri ekonomikoak oinarri hartuta, merkatuko enpresetan edota gizarte intereseko ekimenetan sartzeko. Espero izatekoa da, egungo egoeran, aldi baterako kontratuak izatea gehienak.
- Birgaikuntza lanetarako pizgarriak ematea: urteko lanaldi osoko 14.900 profesional eraikuntzan, 58.600 etxebizitzatan eta ikastetxeko publikoetako eta osasun etxeetako ekipamenduetan jarduteko.
- Lehen lan esperientziarako aukera 24.500 gazterentzat.
- 92.100 lanpostu (finantziazioa) eta 37.900 lanpostu (lehiakortasuna/finkapena) mantentzea, 23.100 autonomo eta ETEren finantziatioa eta lehiakortasuna hobetzeko edo finkatzeko laguntza oinarri izanik.
- 5.500 lanpostu mantentzea: ordezen, belaunaldien arteko errelebu edo gizarte ekonomiako enpresa bihurtzeko prozesuetarako laguntza izango da oinarria.
- 32.200 lanpostu mantentzea enplegu zentro berezietan eta laneratze enpresetan.
- Enplegurako beste politika aktibo batzuetan parte hartzen duten beste pertsona batzuen lanpostu kopurua handitzea, batik bat gaitzearen arloan.

7. Jarraipen eta ebaluazio sistema

Honako hauek ahalbidetuko dituzte planaren jarraipenak eta ebaluazioak:

- Planak dakartzan helburuak, programak eta ekimenak betetzen direla bermatzea.
- Plana burutzean eragina izan dezaketen gizarte edota ekonomi aldagaien eboluzioaren aurrean beharrezkoak izan daitezkeen bestelako zuzenketa neurriak hartzea.
- Planean parte hartzen duten eragile guztien arteko ahalik eta koordinaziorik handiena bermatzea.
- Burutzen ari diren jarduketak EAEko enpleguan eta ekonomian izaten ari diren eragina zein den jakin ahal izatea.
- Ahalik eta gardentasunik handiena ahalbidetzea, herritarrek eta gizarte eragileek uneoro izan dezaten planaren burutzapenaren eboluzioaren eta lorturiko emaitzen gaineko informazioa.

Hauxe izango da sistema:

- Sail arteko jarraipena, hiru hilean behin.
- Erakunde arteko jarraipena, sei hilean behin.
- Urteko ebaluazioak: urteko helburuak betetzearen gaineko ikuspegia eskaintzeaz gain, hurrengo ekitaldian garatu beharreko ekimen zehatzak, horien helburuak eta aurrekontuan duten hedadura zehazteko modua emango dute.
- Planaren azken ebaluazioa.

Jarraipen eta ebaluazio horietan, genero eta adin ikuspegia ezarriko da.

Planak dakartzan ekintzei dagozkien adierazleez gain, EAEko lan-merkatuaren adierazle nagusien eta horretan eragin duten beste adierazle ekonomiko batzuen bilakaerari buruzko ikuspegia bilduko dute ebaluazioek.

ENPLEGUAREN JARRAIPEN-ADIERAZLEAK EUSKADIN		
ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK	Data	Datua
BPGaren urteko hazkundea (%)	2012	-1,3
Enpresa establezimenduen saldo netoa (altak - bajak)	2011	-7.664
Sortutako enpresa establezimenduen kopurua	2011	14.884
Esportazioen urteko bolumena (milioi €)	2012	20.302
I+Gko gastua BPGaren gainean (%)	2012	2,06
LAN-MERKATUAREN ADIERAZLEAK	Data	Datua
Populazio aktiboa (mila pertsona, PRA)	2012 T4	1.015,9
Jarduera-tasa (PRA)	2012 T4	54,1
Jarduera-tasa diferentziala Estatuarekiko (% , EPA)	2012 T4	-2,52 puntu
Jarduera-tasa diferentziala EBrekiko (% , EPA eta EUROSTAT)	2012 T4	-1,0 puntu
Lanean ari diren pertsonak (milakoetan, EPA)	2012 T4	859,4
Gizarte Segurantzari afiliaturiko pertsonak (milaka pertsonak)	Dic 2012	887,6
Enplegu tasa (% , PRA)	2012 T4	47,2
Enplegu-tasa diferentziala estatuarekiko (% , EPA)	2012 T4	3,92 puntu
Enplegu-tasa diferentziala EBrekiko (% , EPA eta EUROSTAT)	2012 T4	-3,5 puntu
Langabetuak (milaka pertsona, EPA)	2012 T4	162,8
Langabezi tasa (% , EPA)	2012 T4	15,93
Jasotako langabezia (milaka pertsona, Lanbide)	2012ko abe.	169,1
Langabezi tasaren diferentzia estatuarekiko (% , EPA)	2012 T4	-10,09
Langabezi tasaren diferentzia EBrekiko (% , EPA eta EUROSTAT)	2012 T4	+4,5
Erregulazio-espeditentek ukituriko pertsona kopurua (orotara)	2012	51.985
Suntsipen erregulazio-espeditentek ukituriko pertsona kopurua	2012	4.269
Baimendutako edota jakinarazitako erregulazio-espeditenteen kopurua	2012	2.636
Emakumeen jarduera-tasaren diferentzia gizonezkoen tasarekiko (% , PRA)	2012 T4	-11,6
Emakumeen langabezi tasaren diferentzia gizonezkoen tasarekiko (% , PRA)	2012 T4	+0,44
35 urtetik beherako langabetuak, Lanbide lan-eskatzaille gisa erregistratuak (milaka)	2012 T4	54,5
Lanbiden lan-eskatzaille gisa erregistraturiko langabetuak (milaka)	2012 T4	169,1
Iraupen luzeko langabezia dauden pertsonak (25 urtetik gorakoak, lanik gabe urtebete edo urte gehiago daramatenak, eta langabezia 6 hilabete edo gehiago daramatzaten 25 urtetik beherakoak), Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa erregistratuak (milaka)	2012 T4	74,5

III.- GOGOETA OROKORRAK

1. Aurretiazko gogoetak

Gure irizpenpean jarri da 2013-2016ko Enplegu Plana. Horren helburua zailtasun handienak dituzten enplegua eta laneratzea hobetzea da, bereziki gazteena, ekintzailatza eta ETErentzako laguntza bultzatuz. Halaber, enpleguan eragin zuzena duten obretan eta proiektuetan inbertsio pribatua izatea bultzatzea du xede eta, aldi berean, erakundeen arteko lankidetzak eta erakunde pribatu eta publikoen arteko laguntza sustatu nahi du enpleguaren galera geldiarazteko.

Lehenik eta behin, esan behar dugu balorazio positiboa egiten dugula galdetu zaigun proposamenaren inguruan, baina horrek ez du estali behar aurretik gizarte eragileekin egon beharreko solaskidetzak. Izan ere, funtsezkoak dira plana burutzeko, planak berak aitortzen duenez "Gizarte elkarriketa eta gizarte kohesioa" esanda enplegurako politika aktiboan

zutabeetako bat direla aipatzean, are gehiago Eusko Legebiltzarrak erakundeak gizarte itunak sustatzeko eskatu ondoren enpleguari eusteko formula gisa.¹

Plan horrek enpleguarekin zerikusia duten ekimen ugari urteari emango dio amaiera: martxoko "Enplegua biziberritzeko programa", Eusko Legebiltzarrak enpleguaren gainean eginiko 100 proposamen; enpleguari, ekintzailetzari eta abarri buruzko erakunde arteko beste akordio batzuk, etab. Horiek ekimen guztiak tresna integratzaile batean biltzeko ahaleginak egin dira, eta hori positiboa da. Aldi berean, horrenbeste plan, programa eta proposamen geldiarazteko balio behar izango luke. Lan-merkatuaren errealtatean eragin txikia izateaz gain, herritarrak nahasteko besterik ez dute balio horrenbeste planek.

Izan ere, nolabaiteko nahasketa ikusten dugu hasieran "Enplegua biziberritzeko programa" deiturikoaren eta orain aurkezten zaigun planaren artean. Biak alderatuz ondoriozta liteke aztergai dugun Enplegu Plana bat datorrela suspertze programarekin, desberdintasun bakarrekin: diru baliabide txikiagoak eta laneratzeko eta tokiko garapenerako partida handiagoak, hain zuzen ekonomi jardueran eta enpleguan berehalako eragin handiagoa izan lezaketen jarduketentzura.

2. Planari buruzko balorazio orokorra

Lehenik eta behin, EGABk uste du Enplegu Planak aitortu egiten duela beste politika eta plangintza estrategiko eremu batzuekin bat etorri beharra, baina horren guztiaren akaberan itxurazko koordinazioa dagoela ematen du, zeren eta, aipatzeaz gain, ez baitu isla praktikorik jarduketa-ardatzetan. Hala, immigrazio planak, familiei laguntzeko planak, berdintasun planak, gizarte zerbitzuak, etab. aipatzen dira, baina gero ez dagozkio ezekin jarduketa-ardatz edo jarduketa-ildori.

Era berean, bereziki okerra dela deritzogu Hezkuntza Sailak planean nahikoa parte hartu ez izana, are gehiago plana Lanbide Heziketako Legearen, bizitza osoan ikastearengaineko legearen edo 2014-2016ko IV Lanbide Heziketaren Euskal Planaren moduko ekimenekin bat etortzea nahi denean.

Bestalde, Planak behin eta berriz dio: *"krisi ekonomikotik ateratzeko eta enplegua berreskuratzeko, aurrekontu austeritate politikaren eta pizgarriak emateko politikaren arteko oreka egokia behar da nahitaez"*. Gure ustez, egungo egoera soilik aldatu ahal izango da ekonomia suspertuz eta inbertsio publikoa handitzera bideraturik dauden eta zikloen kontrakoak diren politikak erabiliz; horretara bideratu beharko litzateke aurrekontuen gaineko politika.

Egokia da aitortzea, eta halaxe baloratzen dugu, enplegua neurri handi batean ekonomi jardueraren deribatua dela, eta langabezi tasak soilik hasiko liriteke jaisten BPGa berriz ere nahikoa hazten denean. Hortaz, funtsezkoa da ekoizpenaren lehiakortasuna hobetzea. Alabaina, beharrezkotzat jotzen dugu eremu publikoak bestelako pizgarri motak ematea; izan ere, asmoa ez da soil-soilik enpresa erabakiek arazoak konpontzea: harago joan nahi da.

Ahaztu egiten da enplegu publikoak duen eginkizun garrantzitsua eta enpleguan duen eragina, politika publikoek kontratazioaren arloan izan dezaketena. Era berean, ahaztu egiten da inbertsio publikoek enplegua sortzeko betetzen duten eginkizuna, baita laguntzak eta diru-laguntzak legean eta hitzarmen kolektiboetan ezarritako lan baldintzak betetzearen menpe egotea ere.

3. Planaren edukia

¹ Eusko Legebiltzarrak 2013ko martxoaren 8an onetsitako ebazpen proposamenen artean (Planak aipatzen ditu justifikazioan), hauxe dio 87.ak, hitzez hitz: *"87. Eusko Legebiltzarrak herri erakundeei eta ekonomi eta gizarte eragileei eskatzen die elkarriketaren kulturak, negozioak kolektiboak eta gizarte itunek enplegua mantentzeko lehentasunezko helburu izan dezaten"*.

Planaren egiturari dagokionez ikusten denez, lehenik eta behin luzeagoa dela esan behar da, azalpen eta deskripzio gehiago dakarrelako, eta bat gatoz planteamendu teorikoekin. Hala ere, ez dugu ikusten Ezohiko Plana denik, hain zuzen egungo egoerak eskatzen duena, ez bildutako neurriei dagokienez, ez ezarritako baliabideei dagokienez.

Planaren arauen atalera iritsita, non ekintzaren terminoak zehazten diren, gure ustez sei jarduketa-ardatz proposatzen dira, baina nolabaiteko eskasia ikusten da proposamenen aldetik. Horietako bakoitzak enplegua sortzen dutela (zati batez) egia izanik, ez da egonkortasunaren aldeko apusturik egiten. Sei ardatz eta programa horiek, gainera, gehiago egokitu beharko litzateke planteaturiko helburuei eta, azken horiek, aldi berean, antzemandako ahulezi eta arriskuei.

Garatu beharreko ekintzak eta erakundeekiko harremanetarako eta partaidetzarako formulak deskribatzen dira. Eskuragarri dauden diru-baliabideak, espero den eragina eta planaren kudeaketa ereduak zehazten dira, baita jarraipen eta ebaluazio sistema ere. Oro har, neurri horiek, ordea, bat datoz beste programa, lege, agindu edo aurrekontu kapitulu batzuetan bildutakoekin. Hori guztia dela-eta, hainbat sailek garaturiko politiken benetako bilketa da plana, baina gure ustez ezohikoa izan behar du Enplegu Planak, enpleguaren arloko politika estrukturalak indartzeko, dagoeneko garatu edo programatu diren ekintzen katalogoa izan beharrean.

Diru-baliabideei dagokionez, 2013-2016ko aldirako 3.315 milioi euroko zifra globalaren ondoren jakin ahal izan denez, 960 milioi euroko ahalegina egin da aurrekontuan, guztizkoaren %28,9 laur urteko epealdirako, baina urteko batez bestekoan (ez dugu urteko eraginaren eta aurreikuspenen xehetasuna), 240 milioira murriztuko litzateke. Gainerako %71,1, *"mugiarazitako kanpoko baliabideak"*, asmoen kontakizuna dela irizten diogu, azalpen handiagoa merezi duen kontaketa.

Gainera, aurrekontuaren banapena ez dator bat zenbait jarduketa-ildo indartzeko asmoarekin, hala nola enplegurako trebakuntza, ETEentzako finantzazioa edo inbertsio publikorik eza.

Bestalde, eta espero diren eraginaren eta baliabideen urteko kopuruarekin gertatzen den bezala, baliabideen lurralde banaketaren falta sumatzen da, gutxienez lurralde historikoen arabera, noiz-eta hauxe aipatzen denean azalpenen atalean behin eta berriz: "Suspertze ekonomikorako eta enplegurako erakunde arteko akordioa," Eusko Jaurilaritzak, foru aldundiek eta EUDELe izenpetua. Egiten ari den "plan estrategikoen multzoa" aipatzen da, gehienak ezinbestean lurralde mailan zehaztu behar dira eta aldundien partaidetza behar da, edo tokiko korporazioena².

Gainera, eraginak neurtzeko adierazleak, oro har, erreferentzia kuantitatibo hutsak dira, eta horietatik ez da espero garaturiko ekintza bakoitzarekin bilatzen diren helburuen lorpenari buruzko informazio handirik. Hala, "lanpostu kopurua handitzea" deritzon eragina, adibidez, ekintzetan parte hartzera mugatzen da soilik. Ez dakigu ezer ekintzen benetako ekintzei eta aipaturiko funtsezko estrategiekin bat etortzeari buruz (lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, etab.).

Azkenik, laudagarria da planaren helburuen artean hauxe ezartzea: *"Ahalik eta gardentasunik handiena ahalbidetzea, herritarrek eta gizarte eragileek uneoro izan dezaten planaren burutzapenaren eboluzioaren eta lorturiko emaitzen gaineko informazioa"*. Hala ere, Planaren jarraipen eta ebaluazio sisteman ez da aipatzen herritarrei edo eragileei jakinarazteko metodorik bat ere.

4. Zein talderentzat den

Planaren talde hartzaileak direla-eta, lehenago martxoko Suspertze Programarekin bezala, planaren ardatza ez da langabezia; izan ere, LANBIDE zerbitzuan inskribaturiko %90etik gorakoa da. Ez dira lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak, gazteak adibidez; baztertuak izateko arriskuan daudenak ere ez ditu biltzen. Krisiaren eraginez lana galdu duten langileak dira.

Ildo horretan, harrigarria da ez egotea, adibidez, 45 urtetik gorako langabetuen enplegua sustatzeko programarik; izan ere, langabetu guztien %40 dira. Ildo beretik, deigarria da zenbait programak, ETEn finantzazioarenak edo "Renove" planek

² Plan horiei dagokienez, badirudi ahantzi egiten dela LANBIDEren Plan Estrategikoa, bere kudeaketa ereduak aztertzen duena eta seguru asko Eusko Legebiltzarrean onetsiko dena laster, Enplegu Plan honetan jasotako dokumentuetako bat izan beharko litzateke.

adibidez, zuzenean sustatzea ekonomia jarduera eta enpleguak eta gero eta gero eta diru gutxiago jasotzea. Bestela esanda, laneratzeko askoz posibilitate gutxiago dituzten taldeetara bideratzen dira ahaleginak.

Agerikoa denez, kontua ez da bertan behera uztea baztertuak izateko arriskuan daudenak. Baina ezberdinak dira helburuak eta tresnak. Euskadiko langabetuen %90ek baino gehiagok politika aktibo eraginkorrek behar dituzte jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko, eta eurek izan beharko lukete Enplegu Planaren hartzaile nagusiak.

25 urtetik beherako gazteei dagokienez, laneratzeko ahalegin handiak proposatzen dira. Hori positiboa da, baina talde horretan zati handi baten arazo espezifikorako ekintzak kontuan hartu barik eta sortu gabe: prestakuntzarik eza. Eta 25 urtetik gorako gazteen prestakuntzarik eza hezkuntza sistemaren eta enplegu sistemaren bidez konpontzen da. Bestela esanda, gazte horien ehuneko handi batek gabeziak ditu, hezkuntza sistemari legezkoekin hain zuzen.

Bestalde, gure ustez emakumeak lan-merkatuan betetzen duen eginkizun garrantzitsua azpimarratu beharko luke Planak, baina ez da hala ageri ardatz edo programa batean ere.

Azkenik, kontuan izan beharko litzateke etxetik kanpora lan egiteari uko egiten dioten pertsonen laguntza espezifikoa eman beharra. Lanaldia murriztu edo eszedentzia baliatu dute, seme-alabak edo mendekotasunean dauden pertsonak zaintzeko (emakumeak gehienbat) lanbide karreraren kalterako. Horietako askok lan-merkatura itzuli behar dute nahitaez krisiak etxeetan duen eraginaren ondorioz.

5. Ezinduak

Batzorde honen aburuz, ezinduek, arestian aipaturiko beste talde batzuek bezala, bereziki pairatzen dute krisia; izan ere, trebakuntzaren eta laneratzearen arloetan lehenik ere zuten desabantaila gehitu beharra dago.

Langabezi tasen igoera nabarmena eta ezinduak lan-merkatuan "beriz kokatu" beharra direla-eta, trebakuntzako programa espezifikoa eta neurriak abiarazteko lehentasunezko taldeen artean kokatu behar dira ezinduak Plan honetan, "Lanerako trebakuntza" deritzon 4. programa operatiboaren barruan.

Halaber, ezinduak 5. Programa operatiboan beren beregi sartzea gomendatzen dugu: "Enplegu inklusiboa. Enpleguaren aldeko elkartasuna", ardatz bakoitzean: toki eta eskualde mailako enplegu planak, kontratatze eta gaitzeko pizgarriak eta baztertuak izateko arriskuan daudenak laneratzeko laguntza, pizgarriak eta laguntza behar dituztelako eremu bakoitzean, zertarako-eta kalitatezko lana eskuratzeko modua izateko.

IV.- GOGOETA ESPEZIFIKOAK

0. Laburpena (5. or.)

Lehenik eta behin, planaren 5. orrian aipatzen da plana Eusko Legebiltzarrak 2013ko martxoaren 8an onetsitako oinarritzko ildoan eta ebazpen proposamenen baitan kokatzen dela. Hori dela-eta, testua honela osatzea proposatzen dugu:

"...konpartituriko printzipio horiei buruz, Enplegu Planak besteak beste bete beharreko helburu hauek aipatzen ditu Eusko Legebiltzarrak:

- *Pertsona aktiboaren enplegua eta laneratzeko bultzatzea, eta bereziki zailtasun gehien dituztenak, arreta berezia gazteengan jarrita betiere.*
- *Ekintzailatza eta ETEentzako laguntza bultzatzea.*
- *Inbertsio publikoa eta pribatua bultzatzea enpleguan eragin zuzena duten obretan eta proiektuetan.*
- *Erakundearen arteko lankidetzak eta erakunde publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatzea enpleguaren galera geldiarazteko.*

- Lan baldintzak hobetzea eta kontratazioen arloko iruzurraren kontrako borroka

Azkenik, honako jarduketa-ardatz hauek ere aipatzen dira Eusko Legebiltzarraren proposamenen tresna komunak diren aldetik:

- ETEn finantzaziorako laguntza ematea.
- Gure udalerrien eta eskualdeen ahalmen endogenoak aprobetxatzea.
- Ekintzailatza eta autoenplegua.
- Gazteen enplegua sustatzea.
- Enplegurako trebakuntza.
- Enplegua sortzeko inbertsioa.
- 50 urtetik gorakoak.
- Lan-baldintzak hobetzeko borroka.
- Lana, norberaren bizitza eta familia bateratzea.
- Emakumeen enplegua.
- Lan-ikuskapeneko plan espezifikoak.

1. Sarrera. 1. atala. Justifikazioa (12. or.)

Planak **ahuleziak** aitortzen ditu, baina gero ez dira helburuetan, jarduketa-ardatzetan eta programa operatiboetan sartzen. Ondoren aipatuko ditugu zenbait adibide:

- Gure lan-merkatuaren bikoiztasuna: aldi baterako kontratuak dituztenak eta kontratu mugagabeak dituztenak. Behin-behineko lanen tasa handia (%21,7), EBko batez bestekoa baino askoz handiagoa (%13,7).
- Zatikako lana duten langileen portzentaje handi bat ez dago pozik lanaldiekin, eta nahiago dute lanaldi osoan lan egin.
- Emakumeak lan-merkatuan sartzeko eta parekatzeko zailtasunak. Izan ere, gizonezkoen antzeko langabezi tasa izan arren, jarduera-tasa txikiagoa, behin-behinekotasun handiagoa eta zatikako lan gehiago dituzte gizonezkoek baino, baita soldata txikiagoak ere.
- Adina, zehazkiago heldutasunari dagokiona, lan-merkatutik baztertzeko faktore nagusienetako bat bihurtu da, dagoeneko diskriminatzaileena ez bada. Lan erreformetan erretiroa 70 urte ingururekin hartzea aipatzen da, baina merkatuaren funtzionamenduak traba handiak jartzen dizkie lana 45 edo 50 urterekin nahi gabe galdu eta lan-merkatuan berriz sartu nahi dutenei.
- Iraupen luzeko langabezi poltsa handiak (adin handiagoarekiko erlazio zuzena ikusten da).
- Ezinduek lana eskuratzeko zailtasun handiagoa izatea, bereziki ohiko merkatuan sartzeko.
- Etorkizunen langabezi tasa: herritar nazionalen bikoitza da.
- Enpleguaren arloko desoreka nabarmenak eskualdeen arabera: %20tik gorako langabezi tasak daude Ezkerraldean eta Enkarterrietan, adibidez.

1. Sarrera. 2. atala. Norainokoa (23. or.)

Testua honelaxe osatzea proposatzen da:

"Enplegua gehitzeko helburua da Plan honen ardatza, baina enplegurako euskal politikak beste helburu osagarri batzuk ere

lantzen jarraitu behar du, helburu hori bezain garrantzitsuak baitira:

- *ENPLEGU HOBEA = Enplegu egonkorra eta kalitatekoa bultzatzea*
- *BERDINTASUN HANDIAGOA = Lana eskuratzeko moduen eta enpleguaren arloko baldintzen desorekak desagerraraztea gizarte talde ezberdinen artean.*
- *KUDEAKETA HOBEA = Enplegu programen eta zerbitzuen kudeaketa eraginkorragoa egitea...*

Gainera, jarduketa-ildo garrantzitsuenak nabarmentzerakoan, aukerak antzemateari eta beharrei aurrea hartzeari dagokiona osatzea gomendatzen da, honelaxe:

- *“AUKERAK ANTZEMATEA ETA BEHARREI AURREA HARTZEA. Euskal enpresen eta pertsonen enplegu eta prestakuntza beharrak eta goranzko sektoreetako enplegu aukerak antzemateko jarduketak. Modu osagarrian, Euskadiko enpleguan eragina izan dezaketen nazio eta nazioarte mailako joerak eta beste eskualde batzuetako jardun onak identifikatu beharko dira, baita gure lan-merkatuko ekonomia eta gizarte eragileen artean ikasitakoa ezagutaraztea ere”.*

2. Printzipioak eta helburuak (41. or.)

Lehenik, hauxe ezarri du **5. printzipioak**:

“5. Gizarte eragileen arteko etengabeko negoziazioak eta elkarriketaren kulturak lagungarria izan behar du enplegua benetan bultzatzeko eta mantentzeko, gizarte mailan kohesionaturik dagoen Euskadi sustatuz, euskal gizarte osoaren eskakizunei erantzuna emateko”.

Gure ustez, printzipio hori ez da zehazten planaren gobernantzaren ezein ekintzatan edo metodotan.

Gainera, hauxe nabarmentzen du 7. printzipioak: *“egoera larria dugu, eta jarduketa bizkorra eta irmoa behar da”*. Ez du islarik izan planerako baliabideen bolumen handiagoan.

Halaber, kontratazioaren arloko egonkortasuna sustatzearekin loturiko beste printzipio batzuen falta sumatzen da, ekonomia eta kontsumoa dinamizatzeke tresna den aldetik, baita enpleguaren kalitatearekin eta laneko behin-behinekotasunaren eta kontratazioaren iruzurraren kontrako borrokarekin ere.

Bestalde, **5. helburua** osatzea proposatzen dugu, honelaxe:

“5. Inbertsio publikoa eta pribatua eta obra intentsiboak bultzatzea enplegua sortzeko”

Azkenik, helburu hauek sartzea proposatzen da:

“8. Zailtasun handienak dituztenen eta 45 urteik gorakoen prestakuntza sustatzea lana eskuratzeko bidea den aldetik, pertsona horientzako programa espezifikoak garatuz

9. Lana, norberaren bizitza eta familia bateratzea.

10. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna enpleguan.

11. Lan istripuak murriztea ikuspegi prebentibotik.

12. Laneko behin-behinekotasunaren kontrako borroka eta enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea bermatzea”.

1. PROGRAMA OPERATIBOA: ETE-AK SUSTATZEA ETA TOKIKO GARAPENA (47. or.)

Gure ustez oker jotkatzea da tokiko garapena turismo eta landa sektoreen garapenarekin lotzea. Tokiko garapenaren ikuspegi mugatu hori ez dagokie, gainera, LANBIDE bultzatzen ari den lana bultzatzeko programei.

2. PROGRAMA OPERATIBOA: EKINTZAILTZA BULTZATZEA (51. or.)

Ekintzailtza sustatzeari dagokionez, enpresa ezarri berriak jarraitzea eta laguntzea biltzen dituen ardatzaren falta sumatzen da.

3. PROGRAMA OPERATIBOA: GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEEN LANA BERMATZEA (55. or.)

Lehen aukera gehienbat praktiken eta beken bidez gauzatzen da, horrela sortzen den enpleguaren kalitatea aintzat hartu barik eta pertsona horien enpleguari jarraipena ematea ahaztuta.

Gainera, ez dira bereizten gazteen estratu ezberdinak prestakuntza mailaren eta adinaren arabera. Bereizketa horretan, jarduketa-ildo desberdinak proposatuko lirateke.

5. Erakundeen arteko harremanetarako eta partaidetzarako formulak (98. or.)

Hauxe adierazten da: *“partaidetzaren eta gardentasunaren aldeko apustu garbia egiten du planak”*.

Gizarte eragileek dokumentua egitean parte hartu ez izanari buruz dagoeneko azaldu duguna adierazi behar dugu berriz ere (ez da ulergarria Planean garrantzitsua dela behin eta berriz aipatu arren), baita Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren presentzia txikia ere.

6. Baliabideak programen eta ardatzen arabera (102-103. or.)

Planaren 102 eta 103. orrietan ageri dira zehaztuta programen eta ardatzen araberako baliabideak, eta finantzazio propiokoak eta mugiarazitako baliabide pribatuak bereizten dira.

Bigarreni dagokionez, gogoeta orokorretan azalduetakoa berresten dugu; izan ere, ez dakigu zein euskarri duen benetan, eta finantzazioa lortzeko moduari buruzko azalpen gehiago behar direla irizten diogu.

Programa operatiboen xehetasunak direla-eta, hauxe uste dugu:

- 1. Programa operatiboa: ETEak sustatzea eta tokiko garapena

Programa honen ekarpen publikoa txikia dela irizten diogu (1.397 milioi euroetatik %0,51 besterik ez), eta gobernu finantzazio pribatuaren tamaina hori mugiarazteko gai izan den galdetzen diogu geure buruari.

- 2. Programa operatiboa: Ekintzailtza bultzatzea

Teorian ekintzailearen aldeko apustu gogorra egiten bada ere, planaren baliabide guztien %2,2 besterik ez du programak.

- 3. Programa operatiboa: Gazteen enplegua sustatzea. Gazteen lana bermatzea

Batzorde honek galdetzen du ea trebakuntza duala eta gazteen ekintzailtza ardatzek programaren funtsen %19,8 eta %10 besterik ez izatea ez ote den kontraesankorra planean zehazturikoarekin. Gainera, kontrataziorako jarduketa-ildorik eza hautematen da, zeren eta lehen aukera gehienbat praktiken eta beken bidez bideratzen baita.

- 4. programa operatiboa: Enplegurako trebakuntza

Harrigarria da trebakuntza inbertsio pribaturik ez aurreikustea eta programa honek planean duen pisua hain txikia izatea (baliabide guztien %7,2).

- 5. programa operatiboa: Enplegu inklusiboa. Enpleguaren aldeko elkartasuna

5.1. ardatzeko tokiko eta eskualdeko enplegu planei dagokienez, Batzorde honek galdetzen du tokiko administrazioen zenbatekoaren kalkuluren bat ote dagoen, planean ezarrita ez dagoena eta EAEko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa dena.

- 6. programa operatiboa: RENOVE. Birgaikuntza

Bigarren programa da Enplegu Plan honen baliabideen bolumenean. Batzorde honek ez daki baliabide horien zein zati erabiliko den lan-eskua kontratatzeko, ezta ekarpen publiko eskasa (programaren %18,6) gainerako funtsak mugiarazteko gai izatea benetan espero den ere.

8. Planaren kudeaketa eredu (111. or.)

Planean aipatzen denez, *“Lehendakaritzak bultzatu eta sail arteko batzorde iraunkor batek koordinatuko du Plana; Batzordearen eginkizuna Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea da”*.

Alabaina, gure ustez gobernantza eredu hori ez da nahikoa zehazten planean.

9. Plana jarraitzeko eta ebaluatzeko sistema (113. or.)

Dagoeneko azaldutakoa berresten du Batzorde honek: eraginak neurtzeko adierazleak, oro har, programa bakoitza kudeatzeko erreferentzia kuantitatiboak besterik ez direla; erreferentzia horietatik ezin espero daiteke eskuratu nahi diren helburuen lorpenari buruzko informazio handirik. Zehazkiago, planaren dokumentuko 67.etik 95.era arteko orrialdeetan aipaturikoek, bereziki “enplegua handitzeari” buruzkoek, jarduketa instrumentalen kopuruari buruzko informazioa besterik ezin eman dezakete: jarduketa horiek orientazioaren eta trebakuntzaren arloko kudeaketa tresnetatik (LANBIDE) egin litezke, baina inola ere ez digute emango eragin finalistaren gaineko emaitzarik.

Halako datuak, erreferentziako magnituderik gabe (populazio aktiboa, langabetuak, lanean ari direnak, adin taldearen araberako taldeak, prestakuntza, etab.), nekez har daitezke “eragin adierazle”tzat. Gehien jota kudeaketa organoek eginiko kudeaketen berri emateko balio dezakete, eta hala bada, baliozkotzat hartzea ahalbidetzen duen beharrezko zehaztapena falta dute. Beraz, ez dakigu kudeaketaren zein errealitate egon daitekeen “enplegua handitzeko beste batzuk” epigrafean aurreikusitako 175.545 pertsonen atzean. Era berean, enplegurako trebakuntza programan, “enpleguaren gehikuntza” 208.391 pertsonakoa dela aipatzen da, baina ez da ezer esaten prestakuntzarako ekintza motek (ikastaroak) izango duten batez besteko iraupenaren gainean.

Are gehiago, “enplegua handitzearen” emaitzak orientazio edota trebakuntza ekintzetan “parte hartze” hutsari egotzita, ez dakigu zein ondorio erabakigarri duten unean uneko faktoreek, baita pertsonalek ere, lan-merkatu jakin baten testuinguruan.

V.- ONDORIOAK

Batzorde honek, lehenik eta behin, adierazi behar du bat datorrela “2013-2016ko Enplegu Planak” dakarren xedearekin: Euskadi ikuspuntu ekonomikotik bizi izaten ari den egoera zailari eta horrek enpleguan duen isla dramatikoari erantzuna eman beharra.

Gure ustez, gobernuaren lehen tasun nagusia izan behar du enpleguak, eta horretarako, baliabideak gehitu eta gastuaren lehen tasuna aldatuko duen aurrekontu politika sustatu behar da eta, aldi berean, enplegurako politika aktiboak garatu behar dira. Ildo horretan, gure ustez ez dira nahikoak planean egungo ezohiko egoerari aurre egiteko ezarritako baliabideak.

Planaren edukia dela-eta, hainbat hutsune eta gabezi ikusten dugu, gure gogoetetan azalduak. Hori dela-eta, berrikusi egin beharko lirateke. Horien artean, beste politika eta plangintza eremu estrategiko batzuekin bat etortze horrek jarduketa-ildoetan isla izan beharko lukeela nabarmetzen dugu, baita ekimen publikoaren partaidetza nahikoa ez izatea inbertsioa eta

enplegua bultzatzeko eta ardatzek eta programek ikusitako ahuleziekin eta arriskuekin korrespondentzia handiagoa izatea ere.

Halaber, berriz diogu Plan honentzat lehenetsunekoak diren taldeak berrikusi behar direla eta elkarrizketak eta itunak benetan enplegu politikak sortzeko oinarria izan behar dutela.

Bilbon, 2013ko abenduaren 20an.



O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos